

GOBERNU BATZARRA

2014. 01. 31

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamalauko urtarrilaren hogeita hamaikan, goizeko 10:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
Ibai Iriarte San Vicente	
Zinegotziak:	
Lore Agirre Zipitria	1.- Aurreko akta onartzea.
Asier de los Rios Soraluze	2.- Neguko programazioa.
Rosa M. Urkola Irigoyen	3.- Zuloaga Txikiko kontratuaren luzapena.
Iñaki Xavier Irazabalbeitia Fernandez.	4.- Tolomendiri diru ekarpena.
Idazkaria:	5.- Babarrun kofradiari 2013ko ekarpena.
Jose Luis Unanue Ugalde	6.- Kimometroak 2013.
Kontuhartzaitzako Teknikaria:	7.- Tokiko Ekintza Plana eguneratzea
Paulino Alonso Eraso	8.- 41/2013 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2014ko urtarrilaren 24an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Neguko programazioa.

Neguko ikuskizun-programazioari buruz Kultura batzordeak 2014.01-21an egindako proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ondoren aipatzen den 2014 urteko egitaraua eta aurrekontua onartzea:

Eguna	Ikuskizuna	Katxeta	Produkzioa	GUZTIRA
Urtarrilak 3	HANSEL ETA GRETEL	2.178,00 €	500,00 €	2.678,00 €
Urtarrilak 18	BERTSO JAIALDIA		1.000,00 €	1.000,00 €
Urtarrilak 24	HAMLET (Artedrama)	4.235,00 €	700,00 €	4.935,00 €
Otsailak 7	GOLDEN APPLE QUARTET EL DIARIO DE ADAN Y EVA		700,00 €	700,00 €
Otsailak 14	(Pentación)		700,00 €	700,00 €
Otsailak 15	TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON JR.: "Terapia"		500,00 €	500,00 €
Otsailak 21	TROIKA	2.420,00 €	700,00 €	3.120,00 €
Martxoak 7	HIRU (Txalo antzerki taldea)	1.210,00 €	700,00 €	1.910,00 €
Martxoak 15	KAPSULAK (Markeliñe) ONDOKO HILOBIKO TIPOA (Txalo antzerki taldea)	2.700,00 €	700,00 €	3.400,00 €
Martxoak 21		3.993,00 €	700,00 €	4.693,00 €
Martxoak 28	KAMALEOIA (Dantzaz konpainia) EÑAUT ELORRIETA: "Deserriko kantak"	2.800,00 €	900,00 €	3.700,00 €
Apirilak 4	ZAZPI ALDIZ ELUR (Mikel Laboa elurretan)	5.700,00 €	700,00 €	6.400,00 €
Apirilak 11		4.500,00 €	700,00 €	5.200,00 €
			GUZTIRA	38.936,00 €

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Kultura departamentuari.

3.- Zuloaga Txikiko kontratuaren luzapena.

Tolosako Udalaren Zuloaga Txiki aterpea Iñaki Etxeberria Insausti jaunak ustiatzen du 1999ko martxoaren 31tik, udalak deitutako lehiaketan irabazle atera eta gero.

Lehiaketaren ondorioz sinatutako hitzarmenak dio honen epea 15 urtekoa izango dela eta beste 5 urtez luzatu ahal izango dela.

Kontuan izanik lehenengo epe hori bukatzeaz dagoela, eta Kultur teknikariak egin duen txostenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Indarrean dagoen hitzarmena beste bost urte gehiago luzatzea: hau da, 2014ko apirilaren 1etik 2019ko martxoaren 31ra, oraingo baldintzak mantenuz.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kultura departamentuari, Kontuhartzaitzari eta Iñaki Etxeberria Insaustiri.

:

4.- Tolomendiri diru ekarpena.

Bi mila eta hamabiko urtarrilaren 25ean Tolosako Udalak eta Tolomendik lankidetzahitzarmena sinatu zuten Tolosako Azoka Tradizionalak elkarrekin gestionatzeko.

Hitzarmenaren arabera, larunbatetako azoken jarraipena eta sutapena egiteagatik udalak diru-kopuru bat emango dio eta KPIren arabera eguneratuko da.

Hori dela eta, Gobernu Batzar honek, Ingurumena, Garpen Ekonomikoa, Merkataritza eta Turismo batzordeak egindako proposamenarekin bat etorritz, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolomendiri 1.232,40 €-ko ekarpena egitea, 2013. urteari dagokiona.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Garpen Ekonomikoa, Merkataritza eta Turismo departamentuari eta Tolomendiri.

5.- Babarrun kofradiari 2013ko ekarpena.

Bi mila eta hamabiko irailaren 25ean Babarrun Kofradiarekin hitzarmena sinatu zen Tolosako Babarrunaren kontsumoa eta honen gainera ezagutza zabaltzeko.

Babarrun Kofradiak 2013ko memoria eta likidazioa aurkeztu ditu.

Beraz, indarrean dagoen hitzarmenaren arabera, Gobernu Batzar honek, Ingurumena, Garpen Ekonomikoa, Merkataritza eta Turismo batzordeak egindako proposamenarekin bat etorritz, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2013. urteari dagokion 2.140 €-ko diru laguntza ematea Babarrun Kofradiari.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Garpen Ekonomikoa, Merkataritza eta Turismo departamentuari eta Babarrun Kofradiari.

6.- Kimometroak 2013.

lazko ekainaren 7an Tolosako Udalak eta Laskorain Ikastolak lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten 2013ko urriaren 6ko Kilometroak euskararen aldeko festaren harira.

3. klausulak honela zioen hitzez hitz:

“Ikastolak antolatu nahi dituen ikuskizunetarako Tolosako Udalak bere doako azpiegiturak eskainiko dizkio Ikastolari, beti ere beste inork aurretik eskatu ez dituen heinean. Ordaindu beharreko aretoetan, Tolosako Udalak diru laguntza moduan emango dizkion 15.000 euro horiei kenketa egingo die diru laguntza eman aurretik.”

Kontuhartzaitzak jakinarazi du Tolosako Udalak goian aipatutako kontzeptuan 3.787,89 euro gastatu dituela. Hortaz, orain ordaindu beharrekoa 11.212,11 euro da.

Era berean, honoko hau adierazten du aipatutako hitzarmenak:

“... Diru laguntza jaso aurretik, jardueraren memoria, txosten ekonomikoa, diru laguntza zurtzeko adinako fakturak edo berauen fotokopia konpultsatuak eta zergak zein gizarte segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak ekarriko ditu Ikastolak.”

Hortaz, Hezkuntza Politikak eta Euskara Batzordeko teknikariak egin duen txostenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emanako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Laskorain Ikastolari 11.212,11 euroko dirulaguntza ematea eta adieraztea gainontzeko kopurua, 15.000 euro arte, aretoen ordainketan erabili dela hitzarmenean jaso zen bezala.

BIGARRENA.- Adieraztea Laskorain Ikastolari, diru laguntza jaso aurretik, arestian aipatutako dokumentazioa aurkeztu behar duela Tolosako Udaletxean.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Hezkuntza Politikak eta Euskara departamentuari eta Laskorain Ikastolari.

7.- Tokiko Ekintza Plana eguneratzea.

Udalsarea 21eko Tokiko Ekintza Plana kudeatzeko ereduak Tokiko Ekintza Plana eguneratzea baimentze du. Ezarpen-mailaren ebaluaketarako burutzen den azterketatik abiatuz egiten da eguneratzea.

Planaren eguneratzeak ez ditu Planaren filosofi orokorrean aldaketa askorik suposatzen baina bai onartzen du:

- Ekintza Planean kontuan hartu gabeko ekintzak identifikatzea: ekintza hauek burutzen ari dira eta planarekin koherenteak dira.

- BIRFORMULATU daitezkeen ekintza identifikatzea: ekintza hauek burutzen ari dira baina ez du zehazki hasierako definizioa betetzen.

- BIKOIZTUTAKO ekintzak identifikatzea.

Hau guztia kontuan izanik, 2012ko ebaluaketa egin eta Udalsarearen irizpideak jarraituz, ondoren, Plana eguneratzeko proposamenak azaltzen dira.

BIRFORMULATUTAKO EKINTZAK

- 2.7.2 Familia interbentziorako programa garatzea
- 3.1.3 Kultur ekintzetarako deskontu programak martxan jartzea.
- 6.2.1 Herritarrek gaikako partaidetza foroak berrindartu
- 6.4.2 Herriko baliabide naturalen zabalkuntza jarduerak sustatu

BIKOIZTUTAKO EKINTZAK

- 5.3.1 Erosketa publiko berdea sustatu

ONARTUTAKO EKINTZA PLANEAN AURREIKUSI GABEKO EKINTZAK

- 4.5.4 Auzo-konpostaia egiteko guneak sortu eta gai honen inguruko sentsibilizazioa egin

Ikusirik Plana eguneratzeko proposamena eta Ingurumena, Garapen Ekonomikoa, Merkataritza eta Turismoa batzordeak dioena, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Aipatutako ekintzetan Tokiko Ekintza Plana eguneratzea eta haiek adierazitako plangintzan txertatzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Ingurumena, Garapen Ekonomikoa, Merkataritza eta Turismoa departamentuari.

8.- 41/2013 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak 41/2013 faktura zerrenda aurkeztu du; 489.439,98 €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- 41/2013 faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:15etan.

ALKATEA

IDAZKARIA